



Antziola eta Latsunbe elkartuko dituen bide berrirako egina dago bidegorri proiektua.

## 'Lur' enpresak Hernanirako bidegorri sarea proposatu dio Udalari, bizikletan ibiltzeko 5.590 metroekin

■ Udalak tramoka egiteko asmoa du bidegorri sarea, obra bakoitzean inguruari dagokion parte kontuan hartuta ■ Proposamenak aldaketak izan litzazke, tokian tokiko obra eta proiektuak errespetatzeko.

HERNANIKO Udalak bidegorri sare bat sortzeko asmoa du Hernanin jendea bizikletan ibiltzeko, eta *Lur* enpresak proposamen bat egin du, bost kilometro eta erdi pasa dituen. Bost partetan banatua dago proposamena: lehen zatia Antziola eta Latsunbe artekoa da, bide berrian; bigarrena, Latsunbe, Zinkoenea, Florida eta Antziola artekoa; hirugarrena, Ave Maria parkekoa; laugarrena, Latsunbe, Urbieta eta Zinkoenea artekoa; eta bosgarrena, Florida, Ibaiondo poligonoa, Zikuñaga eta Zinkoenea artekoa.

### Zatika egingo da

Andoni Amonarraiz Udaleko Zerbitzuetako zinegotziaren hitzetan zatika egingo da Hernaniko bidegorri sarea, tokian tokiko proiektuak

egiterako orduan kontuan hartuta, egiten diren beste obrekin batera gauzatzeko. Proposamen honek aldaketak izan litzazke hala ere, tokian tokiko proiektuek hala eskatzen badute edo beste ibilbide batzuei egokiago irizten bazaie.

### Latsunbe-Antziola

Bidegorri sareko lehen zatia dagoeneko eta Latsunbe eta Antziola elkartuko dituen saihesbide berriaren ondoan joango da. Guztira 375 metro ditu luzeran eta 198.900 euro inguruko aurrekontua du, Lur enpresaren proposamenean azaltzen denez.

Proposamenak 5.590 metro ditu eta kostua guztira 1.670.000 eurokoa izango da proposamenaren arabera, 278 miloi pezeta.

### PROPOSAMENA FASEZ-FASE

- 1) Antziola-Latsunbe:** Dagoeneko proiektatua dago eta Antziola eta Latsunbe elkartzen dituen bide berriaren ondokijoa. Distantzia 375 metro. Kostua: 198.900 euro.
- 2) Latsunbe-Zinkoenea-Florida-Antziola:** Latsunbetik Antziolarako bidea izango litzateke, Zinkoeneatik, Mañe y Flaquerretik, Floridatik eta Sagastialdetik barrena. Distantzia: 2.200 metro. Kostua: 583.000 euro.
- 3) Ave Maria Parkea:** Etorkizunean Udal parkea izango da Ave Mariakoa eta Latsunbe Berri kalea eta bideko bidegorriak elkartuko dituen zatia parketik joango litzateke. Distantzia: 600 metro. Kostua: 159.000 euro.
- 4) Latsunbe-Urbieta-Zinkoenea:** Ertzaintza pareko rotodatik Zinkoeneara joango litzateke bidegorria, Urbieta kalean barrena. Distantzia: 750 metro. Kostua: 198.750 euro.
- 5) Florida-Ibaiondo-Zikuñaga-Zinkoenea:** Zikuñagatik, Floridatik eta Zinkoeneatik Ibaiondo eta Akerregi poligonoetara joango litzateke. Distantzia: 2.000 metro. Kostua: 530.000 euro.

### Jose Mari Etxeberria zenari oroigarria jarriko diote gaur Abailarrin

JOSE Mari Etxeberria errefuxiatuaren heriotzaren 20garren urteurrena bete zen iaz eta bere aldeko oroigarri bat jarriko dute gaur, Abailarri azpian. Hara joateko 10:00etan dago zita Atsegindegian eta 10:30etan Besabin. Antolatzaileek ekitaldirako dei egin dute. □

### ■ FUTBOLA

#### Partidu zaila baina irabazi beharrekoa

EGIAKO Matigoxotegi zelaiaren jokatu dute gaur Hernanik eta Zarautzek, Gorengo mailan, 15:30etan. Hernani sailkapeneko zuloan sartu da eta oraindik partidu asko gelditzen diren arren, hasi beharra dauka irabazten denboraldia koplikatzea nahi ez badu. Zarautz denboraldi borobila ari da egiten eta hirugarren dijoa Hernanik baino 16 puntu gehiagorekin. □

### ■ ERRUGBIA

#### Igoera fasea preparatzera

HERNANIK Atletikoren kontra jokatu du gaur Aieten, 17:00etan. Hernaniarrak sailkatuta daude igoera faserako eta entrenamendu gisa dituzte ligako azken partiduak. □

#### 'Las mujeres de verdad tienes curvas' filma

*Las mujeres de verdad tienes curvas* pelikula botako dute gaur eta bihar Biteri kultur etxean. Gaur 19:30etan eta 22:30etan eta bihar, igandea, 19:30etan. □

#### Irakasle bat behar da

akademia batean

DBHkoei klaseak emateko

☎ 943 336090

**TOLARE SAGARDOTEGIA**

**eizmendi**

*Maixa Eizmendi*

Osiñaga Auzoa - Tel. 943 556 405 - Mabila 616 450 380 - HERNANI

**IRUBIDE JATETXEA**

Epele auzoa 7 - HERNANI  
☎ 943 552 480  
Mabila: 667 208 702

**Telemar**

ANTENAK

TB PARABOLIKOEN ANTENEN INSTALAKUNTZA  
BANAKAKOAK ETA KOLEKTIBOAK  
TELEDISTRIBUZIOA  
TELEFONIA MUGIKORRA  
KONTSERBAZIO ETA MANTENIMENTUA

Elkano 13 / Tel.: 943 55 33 99 - Faxa: 943 33 00 60 - Itxastele@terra.es  
HERNANI

telyco *denda* Telefonica

## IGERIKETA

### Olatz Altuna Gipuzkoako selekzioak deitu du Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko

■ Gaur eta bihar dira Euskal Herriko lurralde arteko txapelketak Santurtzin eta Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroak hartuko dute parte.

OLATZ Altuna igerilari hernaniarrak Gipuzkoako selekzioarekin parte hartuko du Euskal Herriko lurralde arteko Txapelketan. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroak hartuko dute parte txapelketan, gaur eta bihar Santurtzin. Hernaniarrak denboraldi ona egin du orain artekoan eta horri eskerrak deitu du Gipuzkoako selekzioak.

Egindako marken artean, Espainiako txapelketarako minima egin du 50 metro libretan aurtengo denboraldian. Martxoaren 3tik 7ra jokatu da Espainiako Txapelketa eta igerilari hernaniarra bertan izango da.

#### Kutxa Trofeoa

Hernaniko taldeko 33 igerilari Kutxa trofeoko kanporaketak dituzte gaur Zarautzen. Hernani ondo dabil talde moduan aurrean eta helburua torneoko finalera sailkatzea dute. □



Olatz Altuna igerilari hernaniarriarra proba baten ostean.

## JASOTA BEZALA

### UDAL INFORMATIKA ARETOA (IMI) EZ ITXI!

Oraingoan, udal informatika aretoko bazkide gisa suertatu zait udal arduradun berri hauen gestioa sufritzea. Duela egun batzuk, beste inongo argipen edo esplikaziorik jaso gabe, udal gobernuak informatika aretoa itxteko harturiko erabakiaren berri izan nuen.

Aurretik ordutegi aldaketa baten berri ematen zuen notizia Kronikan irakurri ahal izan nuen. Ordutegi aldaketa "xelebrea" inondik inora, udal zerbitzu bat erdira murrizten duen "ordutegi aldaketa". Geroztik nire susmo okerrenak baieztatu dira eta jakin

ahal izan dut udal gobernu taldeak Informatika Aretoa (IMI) itxteko erabakia hartu duela. Erabaki hau hilabete batzuen buruan gauzatuko delarik.

Honen aurrean nire haserrea eta desadostasuna adierazi nahi dut. Desadostasun erabatekoa, horrelako erabakirik hartzeko arrazoirik ez baitago, oso ondo funtzionatzen duen zerbitzu publikoa baita. Are gehiago, uste dut Biterin dagoenetik asko irabazi duen zerbitzu bat dela, Kultur Etxeari aportazio positiboa egin diola eta liburutegiaren ondoan egotearekin kultur zerbitzuak osatu, borobildu eta aberastu dira.

Ez dut harturiko erabakia ulertzen eta gainera ez bazkide, ez herritar gisa ez dugu inolako azalpenik jaso.

Amaitzeko, galdera eta gonbidapen bana.

Galdera: Alkate jauna, Kultur zinegotzia zergatik itxi nahi duzue udal informatika aretoa?

Gonbidapena: Erabaki honekin ados ez daudenei: bazkideei, herritarrei; bere desadostasuna adieraztera gonbidatzen diet, ea denon ahaleginarekin lortzen dugun Udal Informatika aretoa ez ixtea eta aurreko ordutegietara bueltatzea.

Mikel Arrieta Iraola

## Trabesiako eski ikastaroa otsailaren 28 eta 29an

■ Interesatu guztiekin bilera egingo da datorren astelehenean ■ Izen ematea otsailaren 24a baino lehen.

MENDIRIZ Mendik trabesia eski ikastaroa antolatu du, hilaren 28-29 astebururako. Interesatuarekin bilera egingo da otsailaren 23an (datorren astelehena) Mendiriz Mendin bertan, arratsaldeko 20:00-etan. Bileran prezioa, ordute-

gia eta ikastaroaren inguruko gauzak zehaztu eta azalduko dira. Izen ematea Mendiriz Mendi elkartearen egin behar da hilaren 24a baino lehen, astelehen, ostegun eta ostiralean, arratsaldeko 20:00-etatik 21:00etara. □

## XAKEA

### Bi taldeek Hernanin jokatu dute gaur arratsaldean

HERNANI Ak Gross E-ren kontra jokatu du gaur, Ariztizabal kaleko lokalean. Hernani talde buru gelditu liteke, puntu bakarrera baitago Fometo Btik.

Hernani Bk Azkenaren kontra jokatu du gaur eta 3-0 irabazi ezkerko igoera fasera sailkatzeko aukerak ditu. Bi partiduak 16:00etan dira. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

## IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Hernaniko estetika zentru batean arratsaldez lan egiteko neska bat behar dugu. Deitu: ☎ 619 32 35 26 - 943 55 15 44

Sagastialden 50m2ko pisua salgai. Kanpokaldera, 2 gela, sukaldia, komona, jangela-sala. Agentziek ez deitu. Tel: ☎ 630 78 24 62

Pertsona euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta 2 ume zaintzeko. Goizeko 7:00etatik 14:00etara. Tel: ☎ 606 33 85 45

Kotxea salgai. Ford Orion marka. 10 urte dauzka. Gasolina. Merke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: ☎ 659 84 02 00 (Maxux)

Etxea salgai Latxunbeberri. Ezin hobeto. 105 m2 erabilgarri + terraza 30 m + jardina 60 m + trasteroa 12 m2. 55.500.000 pta. Garaje itxia 3.300.000 pta. Tel: ☎ 651 70 88 84

Zikuñagan etxea salgai, 4 logela, sala, komona eta sukaldia. Dena kanpokaldera. Eguzkia egun osoan. Berritzeko. Aukera, bigarren etxea edo izugarritzko terraza. 24.500.000 pta. Deitu: ☎ 665 713658 (10:00-12:00 edo 17:00-20:00)

## Urnietako SALESIAR IKASTETXEA

Tfno. 943 551 789

12 urtekin hasi...  
eta lanean edo unibertsitatean sartu arte !!

### DBH/ESO

### BATXILERGOA / BACHILLERATO:

Teknologikoa  
Natur eta Osasun Zientziak  
Humanistikoa

### LANBIDE HEZIKETA / FORMACIÓN PROFESIONAL:

(Erdi eta Goi Mailako Zikloak)

Elektrizitate / Elektronika  
Mantenimendua  
Grafikagintza



Ikastetxea ezagutzeko: Otsailak, 18 - 19:00etan

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Non	Noiz	
Goren.	Hernani-Zarauz	Matxoko	Gaur 15:30	Ereem ontea - Galaretako Jaialdia			
Emakum.	Atsedenalia			1) Zabakain-Dn / M atx V Astb	Galaretako	Gaur 16:00	
Gaz. Eusk.	Bem eo-Hernani	Bem eo	Bihar 11:30	2) Ezkuma-Urko / A luma I-Lzaso	Galaretako	Gaur 17:00	
Gazteak 1	Hernani-A Bapetanak	Urnietako	Gaur 16:00	3) Iñigo A Izpuri / B Iñigo J. Etxeberria	Galaretako	Gaur 18:00	
Kad. O hor	Atsedenalia			4) Iñigo G. Gaztelu / Juaristi O. Iñigo	Galaretako	Gaur 19:00	
Kadeteak 1	Hernani-Tobasa	Urnietako	Gaur 11:00	Udaberritxapelketa			
Haur. O hor	Atsedenalia			Jubenilak	Huizi-Zumutza / Kaskioa	A tano	Gaur 16:00
Haur. 1	Atsedenalia			Jubenilak	Ezeiza HUKA / Bergara	Bergara	Gaur 17:00
ERRUGBIA				Gipuzkoako Txapelketa			
1 Autono	A tano-Hernani	A tano	Gaur 17:00	Trinkete, kad	M uñoz / Apeztebea	Gaska	Gaur 16:00
Jub. Euskal	Hernani-Independents	A tano	Gaur 15:35	Trinkete, jub	Ezeiza II / Zabala	Gaska	Gaur 16:00
Kad. Euskal	Hernani-Independents	Zarauz	Gaur 14:35	Trinketea	Gaskon-A Izpuri / B ehar Zana	Gaska	Bihar 10:00
WATER POLOA				XAKEA			
Eusk M util.	Leba-Hernani	Leba	Gaur, 13:00	Gipuzkoa 1	Hernani A - Gross E	Hernani	Gaur 16:00
				Gipuzkoa 2	Hernani B - Fortuna B	Hernani	Gaur 16:00



Ezkerretik, Beatriz Fernandino zinegotzia, eta lan taldea: Xabier Iriarte, Eulali Aranburu, Inaxio Sanz, Joxe Angel Segura eta Pili Lujanbio. Jon Alejos ere bada lan taldean.

## Hernaniko inauterien historia eta bizi izan dituztenen testigantzak

■ 'Hernaniko Inauteria oroituz' lana egin dutenek historiaren zati hori bildu beharraren garrantzia azpimarratu dute.

OSTEGUN gizen egunean, *Hernaniko Inauteria oroituz* liburua aurkeztu zuten Biterin, Inauteria berriz egiten hasi direneko 25garren urteurrenean. Lana herriko inauteriekin lotura izan duten pertsona talde batek egin du, beste zenbait pertsona eta talderen laguntzaz. Lanak Hernaniko inauterien

historia biltzen du, gerraurreko jaia ezagutu zutenen testigantza eta azken 25 urteetan parte hartu dutenen esperientzia eta argazkiak. Xabier Iriarte eta Eulali Aranburuk aberastasun hori bildu beharraren garrantzia azpimarratu zuten, eta eskerrak eman zizkieten parte hartu zuten guztiei.

**XVIIgarren mendetik datuak** Xabier Iriartek azaldu duenez, Hernaniko Inauterien aipamena egiten duen dokumentu zaharrena 1653 garren urtekoa da. XIXgarren mendean hartu zuten indar handia eta inauterietako jai batzordea osatu zen. Gazte koadrilak, konpartsak eta abar indarra hartu zuten eta hor

osatu zen gerra garai arte izaten zen festa modua. 1936an izan ziren azken Inauteria Hernanin, erregimen berriak galerazi egin baitzituen. Urumea bailaran ordea, mozorro festa egiten jarraitu zuten 1960ko hamarkada arte.

1979an berriz ere inauteria modu ofizialean hasi ziren

Hernanin, gaur ezagutzen ditugun moduan. Udaletxeko kultura sailaren babesa duen argitalpenak 25 urte hauetako protagonista izan diren zenbait konpartsa, koadrila eta pertsonen bizipenak bildu ditu, eta argazki bilduma ederra ere bai. Hernaniko Inauteria oroituz, liburudendetan dago. □



## Inauteri festak

### Urteko lehen Axeri Dantza gaur Hernanin

AXERI Dantzak emango dio hasiera inauterietako gaurko egunari Hernanin eta egun osoan izango da festa. Txaranga, xexenak eta erraldoi eta buruhandiak izango dira goizetik, Axeri Dantzaren segidan, eta arratsaldean Circus Mircus kale animazioa dago Detraka taldearen eskutik. Segidan Mozorro festa izango da eta karaokea eta dantzarako aukera izango dute mozorrotutako gazteek. Eguna bukatzeko Betikoak txaranga aterako da, goizaldean.

Inauteri festek aldaketa handia izan dute Hernanin eta gaur egun gaztetxoentzako festa izaten da herrian eta egitaraurik gehiena ere gazteenentzako

prestatua dago. Bestalde, Zaharren Egoitzan ere antolatzen dute festa eta gaur mozorroak prestatu eta inauterietako merienda egingo dute arratsaldean.

#### Egitaraua

- 10:00: Axeri Dantza.
- 11:00: Betikoak txaranga.
- 11:30: Xexenak Urumea aurrean.
- 12:30: Erraldoi eta buruhandiak.
- 16:30: Circus Mircus kale Animazioa.
- 18:30: Gazteentzako mozorro festa, Tilosetan.
- 00:00: Betikoak txaranga.

**Antziola-Motor**  
Salmenta eta tailer zerbitzua

**Ford FocusC-MAX**

**Ford Focus familiako kide berria**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

**MINER**  
JANARIDENDA  
Denda ixten dugu.  
Likidazioak otsailaren 20tik aurrera.

Hainbat tresna salgai:

- Mural frigorifikoa (motorra kanpoan dagoana)
- Arkoi Konjeladore bat
- Kortadora
- 2 pixu (1000 PLU memoriarekin)
- Zintzilikatzen den pixua
- Estanteriak egurra, ispilua eta argiarekin eta normala argiarekin

**INFORMAZIO GEHIAGO**  
943 55 01 36 - 699 82 91 98

**GALARRETA JAI-ALAI**

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00 ETATIK AURRERA**  
**ERREMONTA JAIALDIA:**

1. part.: Zalakain - Ion / Matxin IV - Astibia
2. part.: Ezkurra - Urko / Altuna I - Lizaso
3. part.: Iñigo - Aizpuru / Bitoria - J. Etxeberria
4. part.: Iribarren - Gaztelu / Juaristi - Olazar

# Herrian baino hobeto non?

## AUKERA ZABALA ETA ANITZA

- 0-3 urte: Udal Haur Eskola
- 2-12 urte: 4 ikastola publiko eta ikastetxe kontzertatu bat
- 12-16 urte: 4 ikastola publiko eta ikastetxe kontzertatu bat

## ZERGATIK MATRIKULATU UMEAK HERNANIN?

- Seme-alaben heziketa hurbil-hurbiletik segi dezakezu
- Ikastetxearen egunerokotasunean parte zuzena hartu dezakezu

- Garraioak ordaindu beharrik ez duzue izango
- Joan etorrian denbora galtzerik ez duzue izango

- Seme-alabek herrian bertan lagunarte zabala izateko aukera dute
- Herriko jarduerak eta zerbitzuak eskura daude ikastetxeen bitartez: eskola-kirola, kultur jarduerak, kiroldegia, kultur etxea, musika-eskola...

## KALITATEZKO ESKAINTZA

- Euskalduna eta eleanitza
- Parte hartzailea: guraso, irakasle eta ikasleen arteko elkarlana bultzatzen duena
- Herrian txertatua: herriko kultur jardueretan parte hartzen duena (Olentzero, Sanjoanak, Iñauteriak...)
- Anitza eta integritateak: elkarrekiko errespetuan oinarrituta
- Herriko eskolen arteko elkarlana bultzatzen duena
- Ingurumena zaintzeaz arduratzen dena
- Kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dituena: jangela, eskolaz kanpoko jarduerak...

## Herriko ikastetxeetan aukera zabala duzu

ADINA	IKASTETXEA	HELBIDEA	TELEFONOA	E-MAILA
0-3	Marieluts udal haur-eskola	Latsunbe auzoa 69	943 552991	
2-12	Elizatxo ikastola	Elizatxo auzoa 2	943 557224	012654aa@hezkuntza.net
	Langile ikastola	Karobieta auzoa z/g	943 555423	langile@ikastola.net
	Txirrita ikastetxea	Ereñotzu auzoa	943 554256	012086aa@hezkuntza.net
	Urumea ikastola	Larramendi kalea z/g	943 550472	012653aa@hezkuntza.net
12-16	Inmaculada ikastetxea	Karobieta auzoa z/g 62	943 550233	lainmaculadaher@planalfa.es
	Elizatxo ikastola	Florida auzoa 28	943 552633	012954aa@hezkuntza.net
	Langile ikastola	Santa Barbara auzoa 27	943 333084	012955aa@hezkuntza.net
	Urumea ikastola	Elkano 7	943 330080	urumeabhi@hotmail.com
16...	Inmaculada ikastetxea	Karobieta auzoa 62	943 550233	lainmaculadaher@planalfa.es
	Hernani Institutua	Santa Barbara auzoa z/g	943 551188	hernani@henanibhi.hezitek.net 013012aa@hezkuntza.net

Herrian bizi, herrian ikasi

**ELIZATXO**  
**Ikastola**

Elizatxo 12 - Florida 18

**Haur-Lehen-Bigarren**  
**Hezkuntza**



- Matrikula: Otsailaren 16tik 27ra bitartean.
- Non: Elizatxo 12 (HH-LH) - Florida 28 (BHI)
- Ordutegia: 09:00 - 12:30 / 14:30 - 16:30
- Telefonoak: HH-LH: 943 55 72 24 - BHI: 943 55 26 33

Informazio gehiago: [www.elizatxoikastola.com](http://www.elizatxoikastola.com)

## INMACULADA IKASTETXEA

### Matrikula irekia

2004ko otsailaren 12tik aurrera

09:00etatik - 12:30etara

14:30etatik - 16:30etara



Sandiusterri 4  
943 55 02 33

0 - 16 urte

bitarteko hezkuntza



Matrikula zabalik dago etapa guztietan (2-16)

Otsailak 16-27

Non: Laubidietan

Ordutegia  
9:00-13:00  
14:30-17:30

Ikastetxeak bisitatzeko aukera eskaintzen da

Laubidietan z/g.- 20120 Hernani ☎ 943 555 423 - Faxe 943 331 936  
Informazio gehiago gure web gunean: [www.langile.com](http://www.langile.com)

## URUMEA IKASTOLA



Haur Hezkuntza (2-6), Lehen Hezkuntza (6-12), eta DBH (12-16)

Matrikula: otsailaren 16tik 27ra bitarte

Non: Urumean (Gay Mur eraikina, Larramendi 18) LH  
(Elkano eraikina, Elkano 7) DBH

09:00-12:00 / 14:30-16:30 (ikastetxea ikusteko aukera)

Tel: 943 55 04 72 (LH) - 943 33 00 80 (DBH)



## "TXIRRITA" - EREÑOTZU

Matrikula: otsailaren 16tik otsailaren 27ra

Telefonoa: 943 554256

Etor zaitez eskola ikustera!



**Hernaniko Udala - Hezkuntza Batzordea**